

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak direla enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Enpresa baten funtsezko baliabideak hauetan banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoak, hasiera batean: ordenagailuak, zerbitzu automatizatua eskaini ahal izateko; telefonoak, honen bidez bezeroen zalantzak argitzeko; lokal bat eta beharko ditugun materialak.

Finantza-baliabideak; hasiera batean bakoitzaren aurrezkiak izango dira, eta ondoren, bestelako enpresek egindako inbertsioak izango dira.

Baliabide-intelektualak eta giza-intelektualak, gure taldeko partaide bakoitzak baliabide bat eskainiko dio enpresari:

Elik sorrera eta imaginazioa du, beraz, ideia berrien proposamenak emango ditu gure enpresak aurrera egin dezan.

Alex, gure ideak antolatzeaz eta gu gidatzeaz arduratzen da, orduan, aurretik emandako idea hori garatu eta antolatu egingo du baita taldeko arazoez arduratuko da ere.

Araitzek diseinu ezagutzak ditu, beraz, gure produktua diseinatzeaz gain erakargarriago bihurtuko du, eta gure webgunea sortzeaz arduratu egingo da.

Leirek, salmentarako eta pertsonekin komunikatzeko gaitasuna du, hortaz, gaitasun horietaz baliatuz produktuaren salmentaz arduratuko da bezeroen harremanetaz arduratuz.

Eta azkenik, Zunbeltzek informatika ikasketak ditu. Beraz, gure webguneaz sortzeaz eta arazo informatikoak eukiz gero, berak konpontzeaz arduratuko da.